



Asteburuko irteera Perra Zaldikoen eskutik

LEITZA ▶ Beintza-Labaienera joan-
etorria egingen dute eta aterpetxe
batean hartuko dute ostatu

ARRAKASTA ▶ Bertan parte hartu
nahi duten asko kanpoan geratu
dira azken egunetan ▶ 7



Abegiko afari bat. E. EZEIZA

TOLOSA ▶

**Abegik egiten
duen lana
ezagutzeko
ate irekien
jardunaldia**

20 urte hauetan etxe
gabekoen alde egin
dutena erakutsiko
dute, etzi ▶ 3

XABI FERNANDEZ ▶ KIROLARIA

«Portugalen izango den
Munduko Txapelketara
begira gaude orain»

Ibartarrak Ingalaterrako Weymoutheko
'Sail for Gold Regatta' irabazi zuen ▶ 6



I. TERRADILLOS

Natura eta hirigintza hizpide, biharkoan

TOLOSA ▶ 'Hirigintza sostengaezina' jardunaldien baitan eskainiko
du Eduardo Ponset-ek hitzaldia Chillida-Leku Museoan ▶ 2

TOLOSA ▶

**Musika koral frantsesa lantzeko
ikastaroa antolatu du Gipuzkoako
Abesbatzen Federazioak**

Gabriel Baltsek eskainiko du asteburu honetan; etzi, hiru
abesbatzen topaketa ere antolatu du Federazioak ▶ 2

jantzi
hitzaren
jertseak

HITZAren egoitzetan salgai

MUSIKA ▶

Musika koral frantsesa lantzeko ikastaroa asteburu honetan, Idiaker jauregian

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatuta, Gabriel Baltsek eskainiko du ikastaroa; larunbatean, hiru abesbatzen topaketa ere antolatu dute Leidorren

IÑIGO TERRADILLOS

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak asteburu honetarako Udazkeneko Ikastaroaren edizio berri bat jarri du abian oraingo honetan Gabriel Baltsek maisuarekin musika koral frantsesari eskainiko zaiolarik. Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketaren atarian, Idiaker Jauregian kokatzen den Federazioaren egoitzan burutuko dira eskolak larunbat eta igande honetan, hau da, urriaren 28an eta 29an.

Gabriel Baltsek, irakasleen formakuntzaz arduratzen den



Ugalde eta Urzelai Abesbatzen Federazioko ordezkariak, atzo. i. t.

Lorraineko (Frantzia) institutu unibertsitarioko irakasle, Metz-en (Frantzia) aurkitzen den Europako kantu koraleko irakasleen taldeko kide eta koru zuzendaritzako irakaslea da Musikenen, besteak beste. Ondorengo errepertorioa landuko du, larunbat eta igandeko ikastaroan: Debussy-ren *Dieu, qu'il la fait bon regarder*, Desenclos-en *Nos auterm*, *Salve Regina*, Poulenc-en *Le jour m'etonne et la nuit me fait peur*, Poulenc-en *Salve Regina*, Jean Martinon-en *Les princes qui gardent de lourds secrets*.

Larunbatean, 10:00etatik

14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara izango da ikastaroa, eta igandean, 10:00etatik 14:00etara. Izena emateko —bihar izango da azken eguna eta 50 euro federatuek eta 100 ez federatuek ordaindu beharko dute— edota edozein argibidetarako 636 00 07 36 edo 943 53 69 73 zenbakietara hots egin beharko da. Abesbatzen Federaziotik jendea animatzen dute, «aukera paregabea delako maila horretako irakasle batekin ikasi ahal izateko».

Abesbatzen topaketa

Bestalde, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak Tolosako Ekinbide Etxearekin (CIT) elkarlanean, koruen arteko topaketa antolatu du 38. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren barne larunbat honetarako. Errenteriako Hirusta eta Landarbaso eta Donostiako Santa Zezilia abesbatzek hartuko dute parte larunbat honetan, banaka nahiz elkarrekin —Xabier Sarasolaren zuzendaritzapean— abestuko dutelarik. Leidorren izango da emanaldia 20:30etik aurrera, eta 3 euro ordaindu beharko dira.

GIZARTEA ▶

Natura eta hirigintzaren inguruan hitz egingo du bihar Eduardo Ponset-ek

Hirigintza sostengaezina jardunaldiak bukatu dira biharkoarekin



Sole Martin, Iñaki Arratibel, Luis Maria Oyarbide, Luis Chillida eta Asier Arrese, atzoko aurkezpenaren. i. t.

I. TERRADILLOS

Garapen Eramangarrirako Foru Aldundiko Departamentuak, Naturgintza Fundazioak eta Chillida-Leku Museoak, bihar, 19:30ean Chillida-Leku Museoko Zabalaga baserrian *La felicidad en el siglo XXI: naturaleza, mega-ciudades y el hombre* hitzaldia antolatu dute. Ekitaldi honekin, hain zuzen ere, emango zaio amaiera, Tolosan *Hirigintza sostengaezina* izenburupean gauzatutako naturaren inguruko hitzaldi sortari.

Eduardo Ponset izango da *La felicidad en el siglo XXI: naturaleza, mega-ciudades y el hombre* gaia jorratuko duena. Idazle ezaguna, dibulgatzaile onenaren artean jartzen dute RTVEko *Redes* izeneko saioko zuzendaria den Ponset. Bere azken liburuan, (*El camino a la felicidad: las nuevas claves científicas*) zoriontasunera gerturatze bidea eta bere baldintzatzaileak zein diren azaltzen du.

Atzo egin zuten Chillida-Leku bertan biharko hitzaldia-aren aurkezpena, eta bertan izan ziren, Luis Maria Oyarbide Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu, Luis Chillida komunikazio arloko arduraduna, Asier Arrese Naturgintza Fundazioko zuzendaria, Iñaki

DATUAK ▶

HITZALDIA

Eguna eta ordua. Bihar, 19:30ean.

Lekua. Chillida-Leku Museoko Zabalaga baserrian.

Hizlaria. Eduardo Ponset.

Izen-ematea. Hitzaldi irekia izango da, baina plaza kopuru mugatua duenez, alde aurretik eman behar da izena 943 33 59 62 zenbakian.

Arratibel Hernaniko Hirigintza zinegotzia eta Sole Martin Naturgintzako Komunikazio Arloko arduraduna eta Tolosako *Hirigintza sostengaezina*-ren baitako ekitaldien zuzendaria. «Punset bezalako aditu batek hitzaldia eskaintzea ohorea» dela azpimarratu zuten, eta «Chillida-Leku baino leku aproposagorik ez dagoela» horretarako. Gizakiaren jarduerak eta natura ez direla kontrajarriak eta horrelako ekimenekin hori frogatzeaz gain, natura jendeari gerturatzea dela helburua azaldu zuten. Hala, «gure planetaren gaitzei aurre egiteko errezeta bilatzen eta herritarrei informatzen eta gaiaren inguruan sentsibilizatzen egin behar dela lan» adierazi zuten, herritar guztiak biharko hitzaldira joateko gonbita luzatzearekin batera.

OARSOALDEKO HITZA
banatzeko persona bat behar da Pasalan

LAN-BALDINTZAK :

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 9etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak 943 30 43 08 telefonora deitu lehenballen.

iragarki laburrak ▶

LANA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurlaritzan, udaletan eta erakunde publikoetan. 943 31 37 82.
Harreragileak, administrari laguntzaileak behar dira erakunde publikoetan. Telefono zenbakia: 943 31 37 82.

GIZARTEA ▶

Abegik egiten duen lana ikusteko aukera emango dute, etzi

«Boluntarioak lortzeko helburuarekin», etxe gabekoei lagunduz 20 urte hauetan egindako lana erakutsiko dute

ESTI EZEIZA

1986an ireki zituen ateak Abegik, etxerik gabekoen egoitzak, eta aurten, 20 urte betetzen ditu. Egun, bi langilek eta 10 boluntarioek egiten dute lan bertan, baina beraien esanetan, «oraindik ere laguntza gehiago behar dugu». Hori dela eta, inguruko jendeak, egiten duten lana ikustearren, etzi goizean, 10:30etik 13:30era ate irekien jardunaldia egindako dute, «ea laguntzeko norbait animatzen den».

Abegik jateko eta lo egiteko zerbitzua eskaintzen ditu, horretarako, bederatzi ohe eta bi sofaz hornitua dago egoitza. Bestalde, Jesus Mari Gerra, zentruko arduradunetako ba-



Abegiren egoitzan, etxe gabekoei ahalizten ari ziren bitartean. E. EZEIZA

tek azpimarratu zuenez, «hona etortzen den edonori, iristen den bezala, identifikatzen duen dokumentu bat eskatzen zaio, eta honekin batera, fitxa bat betetzen zaio».

Laguntza hau jasotzen duenak, gehienez zortzi egun igaro ahal izango ditu zentroan, eta beste hiru hilabete igaro arte ezin dute berriro itzuli. Hala ere, zenbait kasutan, egonaldi

hauek luzatu daitezke; lana aurkitu dutelako, ikasten hasi direlako...

Santa Maria elizaren ondoko lokalaz gain, hiru laguntzako tokia duen Goizaldi izeneko etxebizitza ere badu Abegik. Hala, formakuntzarako asmoa erakusten badute etxerik gabekoei, hemen denbora luzez geratzeko aukera izango dute.

Zentrukoek emandako datuen arabera, 20 urtetako lanaldi honetan, 51.000 lagunei eman diete ostatu, 35.000 otordu ere eman dituzte. Abegin ostatu hartzen dutenen gehiengoa atzeritarra da, %89a hain zuzen. Hauetatik %96, gizonetakoak dira. Egoitzakoen esanetan, «egun ostatu bila etortzen direnak, ez dira betidanik ezagutu ditugun txi-roak, oraingoan gehiengo etorkinak dira eta itxura hobea dute». Hala, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK horietako biren hitz egin du.

Etorkezunari begira

Gipuzkoako Foru Aldundiak, duela hilabete batzuk egoitza isteko deia luzatu zuen. Izan ere, Tolosako Udalak proiektu handiago bat aurkeztu zuen. Hala ere, egitasmo hau oraindik ez da abiatu, horregatik

INKESTA ▶ Zerk bultzatuta ikusi duzue zure burua kalean eta, ondorioz, Abegin?

MARIA ROSA MORALES

ETXE GABEA



«Jostun bezala aritzen nintzen lanean, baina denbora asko daramat lanik aurkitu gabe, eta hemen amaitu dut».

MIGUEL ANGEN ANTON

ETXE GABEA



«Arazo batzuegatik, 18 urterekin alde egin nuen etxetik, eta 21 nituenetik (5 urte) bizimodu hau daramat».

bihari bitartean, Abegik lanean jarraituko du. Jesus Mari Gerra azaldu zuenez, orain arteko zerbitzu murriztegia da, leku gehiago behar dute eskaria asetu ahal izateko.

OSASUNA ▶



Obesitatearen aurkako autobusa

E. Ezeiza ▶ Nutricare, obesitatearen eta gehiegizko pisuaren aurkako autobusa, atzo iritsi zen Tolosara. Hara hurbildu zirenei azterketa mediku bat egin zieten, bakoitzaren ezaugarriak zehazteko, eta aholkuak emateko. E. EZEIZA

GIZARTEA ▶



Intxurren Ertzaintza sartu izana salatuz

I. Garcia ▶ 100 lagunetik gora elkarretaratzea egin zuten herenegun arratsaldean Tolosako Triangulo plazan, Ertzaintza Intxurre tabernan sartu zelako. Elkarretaratearen ondoren, Tolosako batzokiaren aurrera joan ziren salaketekin jarraituz. I.G.



38. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

gizarte ekintza

kultura

Babesle Ofiziala

kutxa
 zer nahi duzu bihar?

VILLABONA ▶ KULTURA



Andoingo Musika Eskolako Bandak emandako kontzertuaren une bat. HITZA

Irrintzi elkartekoak «gustura» musikaren inguruko ekitaldiekin

25. urteurrena dela eta, txistuaren inguruko ekitaldiak eta Andoingo Musika Eskolako Banda entzun ahal izan dituzte

IMANOL GARCIA

Irrintzi elkarteak bere 25. urteurrena ospatzen ari da hainbat ekitaldirekin. Azkeneko biek musikarekin izan dute lotura eta elkartekoak «gustura» agertu dira ekitaldiekin izan duten harrerarengatik.

Txistuaren inguruan bildu ziren 60 bat lagun elkartearen. Mikel Aranbururen hitzaldia entzun ahal izan zuten eta gero Aitor Arozena eta Garikoitz Mendizabal txistularien kontzertua. «Familiako giroa izan zen», azaldu dute elkartetik. Alde batetik txistuaren historia ezagutzeak eta bestetik instrumentuarekin nolako musika jo daitekeen entzuteak ekitaldi osatua izatea egin zuten.



Arozena eta Mendizabal emanaldiaren une batean. HITZA

Beste ekitaldia Andoingo Musika Eskolako Bandak eskaini zuen. Kontzertu horretara ere lagun ugari bildu ziren.

Txistularien plazan egin zen emanaldia eta Irrintzi elkarteak gustura zeuden sortutako giroarekin.

VILLABONA ▶ KULTURA

Arkaitz dantza taldearen emanaldia Olaederran



Arkaitz dantza taldea emanaldi batean. HITZA

ERREDAKZIOA

Arkaitz dantza taldeak emanaldia eskainiko du bihar, 22:30ean, Olaederra kiroldegian. Santio jaietan Arkaitz dantza taldearen emanaldia bertan behera gelditu zen eguraldia zela eta. Egun hartan hartutako erabaki horrek ere beste alde bat bazuen, hau da, emanaldia beste egun batean antolatzea. Izan ere, antolatzaileek ez zuten Arkaitz bezalako taldea dantzan ikuste-

ko aukerarik galdu nahi izan. Horrela, bihar izango da dantza taldearen ikuskizuna ikusteko aukera. Sarrera doan izango da.

Aurten 80 urte bete ditu Arkaitz dantza taldeak eta beraz esperientzia handikoa da. Talde honen ezaugarriarik garrantzitsuenetakoa mutilen dantzak lirateke, gaur egun dantza talde gehienei falta zaiena, hain zuzen ere. Dantzen indarra eta erritmoa azpimarragarriak dira.

ANOETA ▶ KIROLA



AGAKo jubenil taldea bere lehen partidari, garaile

Erredakzioa ▶ Anoetako Gazte Asanbladako areto futboleko jubenil taldeak lehen partidua jokatu zuen Zarautzen eta 2-4 irabazi zuen. Golak Urtzik (2) eta Aratzek (2) lortu zituzten. Bestalde 3. Mailako taldeak atsedena izan zuen. Asteburu honetan, larunbatean, bi taldeek etxean jokatu dute kiroldegi berrian. HITZA

urteurrenak ▶



II. Urteurrena

Manu Aranburu Olaetxea

Gizonen lana jakintza dugu ezagutzeko aldatzea, Naturekin bat izan eta harremanetan sartzea. Eta indarrak ongi errotuz gure sustraiak lurrari lotuz bertatik irautea. Ezaren gudaz baietza sortuz ukazioa legez hartuz beti aurrera joatea.



▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekoahitza.info



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ALEGIA ▶ MUSIKA



Txintxarri Abesbatzak Lukas Guridiren hainbat kanta abestu zituen Azpeitiko Betharram aretoan. HITZA

Guridiren musika Txintxarrikoen ahotan

Azpeitiko entzuleak «gustura» izan ziren alegiarren egitarauarekin, azpeitiarraren musikaz gozatu baitzuten

NEREA URBIZU

Lehenago larunbatean azpeitiarrak «gustura» entzun zituzten Lukas Guridi herritarrek konposatutako euskal kantu alai eta tristeak, Txintxarrien ahoetatik. Kontzertuaren amaieran, Guridiren oinordeko batek oroigarria jaso zuen Azpeitiko Udaleko zinegotziaren eskutatik. Denek batera *Agur jaunak* kantatuz bukatu zen kontzertua.

Alegiako Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartearen izenean «eskerrak eman nahi dizkiogu Azpeitiko Udalarri Guridiren omenezko kontzertua antolatu zuelako eta kontzertu hori ematera gonbidatu gintuelako». Izan ere, abesbatzaren zatitza, «Guridik arrasto nabarmena utzi zuen Alegian eta batez ere garrantzi handiko pertsona izan da 46 urte kan-

tuan daramatzan Txintxarri Abesbatzaren oinarri sendoak finkatzeko orduan».

Lukas Guridi Alegian urtean apaiz egondako gizonaren omenez kantatu zuen Alegiako Txintxarri abesbatzak Azpeitiko Betharram aretoan. Azpeitiko Udalak urtero antolatzen duen musika zikloaren barnean sartu zen kontzertu hau, jaiotzez azpeitiarra zen Guridi musika konposatzaileari eskainitako kontzertua.

14 abesti kantatu zituzten alegiarrek Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean. Euskal abestiak izan ziren gehienak, *Agurra* edota Benito Lertxundiren *Nere herriko*; baina duarik gabe Guridiren lanak izan ziren nagusi. Alegiako Mariaje Rekondok lagundu zuen pianoan hainbat kantutan, eta Xefe Balerdi izan zen hainbat kantetako bakarlarria.

Lukas Guridi Alegian

Duela 100 urte jaio zen Lukas Guridi Azpeitian, hilaren 17an. Apaiz eginda Leon Egiuren apaizaren abesbatzan egin zituen lehen pausak musikaren munduan. Organo-jole ere izan zen hainbat herritan.

Gerra iristerakoan ihes egin zuen eta Alegiara joan zen: bertan egon zen apaiz 60ko hamarkadaren hasierara arte. Orduan burutu zuen musikaren arloan egin zuen lanaren zati handi bat. Txintxarri abesbatzaren oinarriak prestatu zituen, Alegian gizonzkoen osatutako parrokiako koruarekin hasita: berak hartu zuen korua zuzentzeko ardura eta horretan oinarrituta sortu zen geroa, 1960an egungo ahots nahasietako Txintxarri Abesbatza. 1960an hil zen bere jaioterrian, 3 urtez gaixorik egon ondoren.

PILOTA ▶

Asteburu hobe baten zain dira gure pilotariak

Bi derbi izan dira eta jubeniletan Tolosako eta Bidegoiango eskolakoek irabazi dute

N. URBIZU

Eskualdeko pilotariak izan dituzte asteburu hobeagoak ere, baina aurrera segitzen dute. Zazpi-Iturrikoen partidetako emaitzak: kadeteetan Añorgak 17 Olaetxea-Azelus bikoteak 22. Banaka, gazteak Luis Angel Zubiri—Aurrera-Saiaz—22, Unai garmendia—Zazpi-Iturri—15. Binaka gazteetan ia irabazita baina Ropon-Leundak 21 tanto egin zituzten. Banaka nagusietan Legarretak irabazi zuen. Eskuz binaka nagusietan Baez anaiek galdu, baina binakako maila guztietako bikoteek, al-diz, irabazi egin zuten.

Bestalde, Aurrera-Saiazeko enaitzak ez dira onegiak izan: kadeteetan eta jubeniletan irabazi dituzte partidak, baina senior mailakoek galdu egin dituzte. Ikusleentzat erakargarriena Zazpi-Iturrikoen kontrakoa izan zen: Renobales-Huarte eta Elurbe-Gar-

mediaren artekoa. Aurrera-Saiazekoek 6 tanto egin zituzten Beotibarren.

Bihar Zazpi-Iturrik 4 partida jokatu ditu: 20:00etan Ibarrran Lizaribar eta Barberia jubenilak Urnietako bikotea izango dute aurrez-aurre. 21:00etatik aurrera senior mailako banakakoa izango da Beotibarren: Aurrera-Saiazeko Mujika, Zazpi-Iturriko Legarretaren kontra. Gero ikasberriko bikotea senior mailan izango dira, eta Jarraian Zumaiako senior mailako bikotea etorriko da.

Amezketako neurketak

Zazpi-Iturrikoak bihar Alkizako Erniopekoen kontra lehiatuko dira Amezketan: kadetak binaka, eta ondoren banakako jubenilen artekoa. Biak, 21:00etatik aurrera.

Igandean 12:00etan gazteen binakako artekoa jokatuko dute, azkoitiarren kontra.

ANOETA ▶

Outlook Express hobeto erabiltzen ikasteko, gaur

Outlook Express ikasteko aukera guztiak ezagutu daitezke gaurko mintegiaren baitan: mezuak idatzi, agiriak erantsi eta abar. Mintegian parte hartzeko KZgunera hurbiltzea nahikoa da. 10:00etan hasiko da, bi orduz. Bestalde, KZguneko ordutegia hilabete honetan astearte, asteazken eta ostegunetan 11:00etatik 13:00etara izango da, eta tutorea 09:00etan izango da.

ALEGIA ▶

Azaro Kulturala, ekitaldiz betetako garaia herrian

Alegian Azaro Kulturala izenekoa jardunaldia prestatu dute, eta argazki erakusketa batekin hasiko dute hilabetea: *lehen eta orain* argazki erakusketa izango da. Azararen 2tik 13ra egongo da ikusgai. Alegiako argazki taldeak eginikoak dira. Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxean izango dira denak. Hurrengo ekitaldi berezia azararen 4an izango da, dantzariek.

hitza

txokoa

lagunen

▶ HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

Avalon
osagaiak
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
T O L O S A

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
T O L O S A
Tel.: 943 67 40 74

honekin
T O L O S A
Tel.: 943 67 22 44

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • T O L O S A
Tel.: 943 65 56 85

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

XABI FERNANDEZ ▶ KIROLARIA



ÍNIGO TERRADILLOS

«Portugalen izango den Munduko Txapelketara begira gaude»

Ingalaterran ekin dio denboraldi-aurreari, orain Santanderren (Espainia) ariko da entrenatzen eta urtariletik aurrera denboraldiko zirkuitoan sartuko da ibartarra

MADDI SOROA

Madrildik bueltan harrapatu du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Xabi Fernandez kirolaria; Ingalaterran Weymoutheko *Sail for Gold Regatta* izeneko bela txapelketan garaipena lortu ostean, Munduko Txapelketara begira dago orain ibartarra.

Nondik nora zabilta?

Urriko lehen bi asteak Ingalaterran igaro ditugu denboraldi-aurrea prestatzen, Weymouthen bi estropada egin ditugularik. Handik etorri eta aste bete izan dugu gauza batzuk antolatuta, hurrengo urterako barkuak begiratu, babesle-

ekin hitz egin... Hurrengo urterako guztia bideratzen aritu gara. Bihartik aurrera Santanderren izango gara entrenatzen hasteko, bertan baitauka-gu entrenatzeko basea.

Saio ona egin zenuten Weymouthen.

Bi estropada egin genituen Weymoutheko *Sail for Gold Regattan*. Batean garaipena lortu genuen eta bestean hirugarren postua. Oso pozik gaude, ez genuen espero hainbeste partehartzaile izango zenik eta behin hara joandakoan ikusi genuen estropada polita zela martxan jartzeko eta denboraldi-aurrea prestatzeko. Denboraldia oso ongi hasi dugu.

Hemendik aurrera zein asmo duzue?

Orain, urtero gisa, entrenatze-ri ekingo diogu abenduaren erdira arte Santanderren (Espainia) dugun basean. Gainera, Ingalaterratik beste bikote bat etorriko da gurekin entrenatzera, munduko txapelkunak diren Draper eta Hisocks, hain zuzen. Abenduaren 16tik 22ra Palamosko (Katalunia) *Christmas Raceen* hartuko dugu parte eta urtariletik aurrera denboraldiari ekingo diogu iraile-rra arte. Miamin hasiko dugu denboraldia eta gero ohiko zirkuitoa egingo dugu, Mallorca (herrialde katalanak), Frantzia, Holanda... eta uztailen Munduko Txapelketara.

Munduko txapelkunekin entrenatuko duzue, beraz.

Bai, duela denbora asko ezagutzen dugu elkar. Atenaseko Olinpiar Jokoetan bi barkuak ibili ginen burrukan eta biek lortu genuen domina. Orain bi urte falta dira Txinarako eta beraz datorren urtea oso garrantzitsua da, jokoetara joateko klasifikazioa erabakiko baita. Horregatik, bai beraiek eta baita guk ere interes handia genuen nazioarte mailan, mailarik handiena duenarekin entrenatzeko. Talde oso ona egin

dugula uste dut eta oso pozik gaude.

Beste bikote batekin entrenatzeak zer suposatzen du?

Itsasoan ez daukagu ondo ala gaizki goazen neurtzen duen tresnarik, horregatik, konparaketa behar dugu barkuan edota gure nabegatzeko eran egindako aldaketak onerako edo txarrerako izan diren jakiteko. Garrantzitsua da, ordea, konparaketa horiek norekin egiten dituzun, izan ere, zure maila beretsua duen bikotearekin alderatzen bazara, orduan jakingo duzu nola ari zaren.

Denboraldi berria nola ikusten duzu?

Oso ondo, hasiera-hasieratik gauzak ondo egiten ari garela uste dut. Iazkoan ez genuen denboraldi-aurrea aurten bezainbeste prestatu, gainera Munduko Txapelketa etorri zen eta apur bat nekatuta geunden. Orain ongi deskantsatuta gaude eta konfidantza handia dugu hurrengo denboraldian saio ona egiteko. Gainera, Munduko Txapelketa Portugalen izango da eta oso toki aproposa da guretzako.

Munduko Txapelketa, Olinpiar Jokoak...

Helburua Olinpiar Jokoak dira

DENBORALDI-AUREA

«Ongi deskantsatuta gaude eta konfidantza handia dugu datorren denboraldian saio ona egiteko»

IKER MARTINEZ

«Oso ondo ulertzen dugu elkar eta hori oso garrantzitsua da, gure ezaugarriak nagusia baita»

OLINPIAR JOKOAK

«Espainiako beste taldeak garaitu behar ditugu Olinpiar Jokoetara joateko txartela lortzeko»

baina guk beti esaten dugu Olinpiar Jokoak irabazteko lehenik bertara joan behar dela eta hori lortzeko saikapen fase batzuk pasatu behar ditugu. Horregatik, Portugalako Munduko Txapelketara begira gaude orain. Espainiako beste taldeak garaitu behar ditugu Olinpiar Jokoetara joateko txartela lortzeko. Hori lortutakoan hasiko ginatke Olinpiar Jokoetan pentsatzen.

Barkuan aldaketarik izan duzue?

Oso lan estua egiten dugu barkuaren inguruan. Ikerketa lana dago, gauza asko probatu behar dira eta negua horretan pasatzen dugu. Gauza berri batzuk erosi ditugu eta orain probatu egin behar ditugu. Gehienbat, gure nabigatzeko eran egiten ditugu aldaketa txikiak, gorputz pisuarekin jokatuz, esaterako.

Zer moduz Iker Martinezekin?

Jada 9 urte daramatza elkarrekin eta hori denbora asko da. Oso ondo ulertzen dugu elkar eta hori oso garrantzitsua da, gure ezaugarriak nagusia baita. Gauza da bai pertsonalki eta baita barku barruan ere oso ongi moldatzen garela. Barkutik kanpora egin beharreko lanak ere ongi banatzen ditugu eta talde ona egiten dugula uste dut. Beste kirolariek aldaketa asko egiten dituzte taldekideekin. Gu oso konstanteak gara horretan eta hori oso garrantzitsua da.

Luzerako zaitugu belan orduan?

Nik uste dut baietz, hala espero dut behintzat. Orain Txina daukagu buruan baina ondoren beste Olinpiar Joko batzuk etorriko dira eta gero beste proiektu asko.

iragarki laburrak ▶

LANA

Ileapaintzailea. Tolosako ileapaindegi batek esperientzia handiko langilea behar du.
625 70 50 59.

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko llantak eta tekuua. Egoera oso onean.
14.000 euro. 943 65 41 43.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Sartu gure webgunean eta parte hartu *Zeuk idatzi* atalean. Tolosaldean eta Leitzaldean gertaturiko mota guztietako albisteak idatzi ditzakezu, baita erreportaiak edota elkarrizketak ere. Zeuk idatzitakoa webgunean agertuko da oso-osorik. Animatu eta parte hartu!

LEITZA ▶ AISIA

Astebururako ibilaldi polita antolatu dute Perra Zaldi taldekoek

Beintza-Labaienera joan-etorria egingen dute; deialdiaren arrakasta ikusita, azken egunetan jendeari ezetz esan diote



Uztaileko Zaldi Egunean erreka zeharkatzen. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Leitzako Perra Zaldi taldeak Beintza-Labaienera asteburu honetarako antolatu duen ibilaldiak ikaragarriak arrakasta izan du. Lau urte inguru daramazate ibilaldiak antolatzen:

«Lehendabiziko urtean 20 bildu baginen, bigarren 40. Aurreko urtean 62 eta aurreko badaramatzagu lauzpabost egun jendeari ezetz esanez». Lehenengo urtetik jendearen aldetik izan zuten erantzunak animatuta urtero ibilaldiak an-

tolatu dituzte, baina aurreko, lehenengo aldiz, jendeari ezetz esan behar izan diote. «Aurreko urtekoak guztiak datoz, ez diegu ezetz esan, eta 65 bat lagun bilduko gara agian».

Aurreko urteetan jendea hain gustura joaten zenez, gau-

za berezia egitea pentsatu zuten Perra Zaldi taldekoek, egun pasa joatea, orain arte egiten zuten bezala, motza gelditzen baitzen. Horregatik, «aurreko asteburu prestatu dugu. Beintza-Labaienera goaz eta han gaua igaroko dugu». Leitzatik dozena bat inguru pertsona joanen dira eta baita Nafarroa eta Gipuzkoako beste hainbat lekutatik ere: Lesaka, Doneztebe, Zugarramurdi, Iruñea, Bera, Zizurkil, Astigarraga, Lasarte, Berastegi, Tolosa, Andoain, Elgoibar, Azkoitia...

Goizean 09:30ean gosari txikia izanen dute Inguruarte zelalean. 10:00ak aldera abiatuko dira eta Ezkurrako mendiak pasa ondoren, Arrarasera 13:00ak aldera iristeko asmoa dute. «Otsola izeneko zelai eder batean hamaiketako egingen dugu eta handik lasai ederrean abiatuko gara». Urrotzko urpegitik barrena joateko asmoa zuten arren, ideia hau bertan behera utzi behar izan dute, «joateko bide oso polita bada ere, handik aurrera segitzeko oso bide kaxkarra da, eta ez dugu ez istripurik, ez ezbeharririk nahi». Igande eguerdian itzuliko dira Leitzara, jendea etxera joateko garaiz.

Beintzan jada aterpetxe bat hartuta dute, bai afaltzeko, bai lotarako ere. Hala ere, egun hauetan bezalaxe, larunbaterako giro ederra eman dute, beharbada atarian lo egitera animatuko dira. «Askok mendian lo egingen dugula pentsatzen dut, pagoren baten azpian, akaso». Patxiaren ustez zerbait antolatu gero, txukun, diegu ezetz esan, eta 65 bat lagun bilduko gara agian».

Aurreko urteetan jendea hain gustura joaten zenez, gau-

hildakoen hilobiak garbitzen eta txukuntzen hasi dira. Ofizialki kanposantuen egunik garrantzitsuen den gertaera horretarako egin beharreko lanak ez dira gutxi: hilobi inguruko belar zakarrak kendu behar dira, eta hilobia bera garbitu, loreak jasotzeko prest jartzeko. Horregatik, egun hauetan, goizetan bereziki, bertara hurbiltzen denak mugimendu gehixeago somatuko du kanposantuan, garbiketa lanetan hasiak baitira.

Garai batean maisterrak kanposantuan ehorzten bazituzten ere, elizaren inguruan egiten zen hildakoen erritua, beharbada ugazabak bertan lurperatzen zituztelako. Gaur egun, aldiz, hori guztia aldatu da, eta hilerrak ezinbesteko bihurtu dira.



Garbiketa lanetan. N. GARZIA

tuzte eta zuri-zuri ageri dira. Egundak falta dira Santu Guztiaren eguna iristeko eta jandak hainbat bizilagun haien

LEITZA ▶ GIZARTEA

Santuen Eguna begira, kanposantua dotore, egindako obrak eta gero

Hilobi artean eskailerak jarri dituzte goitik beharino eta paretak ere txukundu dituzte

N. GARZIA

Hurrengo asteko Santu Guztiaren Eguna begira, aurreko kanposantua dotore jarri dute hainbat berritasunekin. Berrikuntza nagusia eskailerena da. Horma-hilobi eta hilobien artean dauden eskailerekin gain, hilobien erdi-erdian ere beste batzuk jarri dituzte. Izan ere, le-

henago euria egiten zuenean ez zen batera erraza izaten behar den bezala egitea, izugarriko lokatzak egiten baitziren eta oso irristakorra jartzen zen. Hori dela eta, jarri dituzten eskailerak denentzat mesedegarri izanen dira. Honetaz gain, paretak ere txukundu egin di-

LEITZA ▶

Bengoetxea VI.a ere, Lau t'erdiko lehian aurrera

N. URBIZU

Larunbatean lortutako garaipenarekin eskuz banakako Lau t'erdiko Txapelketan aurrera egitea lortu du Bengoetxea leitzarrak; arerioa Titin III.a izanen du. Bengoetxearen ustez «Titin indartsu dabil, bizkorra da, eta zaila izanen da partida; hala ere, presiorik gabe jokatuko dute».

Etzi Iruñeako Labrit pilotalekuan izanen da norgehiagoka. Pilotariaren arabera «afizioa baliteke joatea, hala espero dut behintzat. Denen artean ziur zer edo zer egingen dugula».

Larunbatean eskuineko eskuko hatz batean mina hartu bazuen ere, aurrera egingo du. «Zerbait hautsita izan nezakeela uste genuen, baina horrela izanen balitz mina sentituko nuke».

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Etzi, Ibarra izango den Elkartasun Egunean egingo den bazkarirako txartelak salgai ohiko tabernetan.

Tolosa. Ereite elkarte kulturantzak antolatuta, Zugarramurdiko kobetara irteera igandean. 10:30ean irtengo dira Santa Klaratik. Izen-ematea 678638394an.

Tolosa. Eskaparatismo ikastaroa Kultur Etxean, ostiralera arte. 14:15etik aurrera izango da.

Tolosa. Abesbatza Lehiaketako sarrera solteak salgai daude TEE bulegoan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. *Esperientziak, XX.* mendeko memoriaren berreskuratzeko proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

Tolosa. *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, *Topaketa* erakusketa Leidor aretoan azaroaren 12a bitarte, eta Fronton jatekxan azaroaren 17ra arte.

ZINEMA

Tolosa. *Verano en Berlin* filma ikusgai zine forumean, 21:30ean, Leidor aretoan.

Villabona. Gaztetxeak antolatuta, zine-klub saioa, herriko plazan, 22:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.
Tolosa. M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrati

(107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren erreparazioa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Liburuek badute etxea

LEABURU ▶ Atzo burutu zuten Leaburuko liburutegiaren inaugurazio ofiziala; aurrerantzean haur nahiz helduentzako liburuek etxe berria izango dute



Liburutegia inaugurazioaren barnean, Idoia Sanchezek hamaika istorio kontatu zizkieten haurrei. M.SOROA

MADDI SOROA

L eaburuko liburuek badute etxea. Atzotik hasita, Leaburuko haur eta gazte badute non irakurri, badute non literatura eskuratu eta badute non ibili ordenagailuan. Orain arte ez bezala, Leaburuk badu liburutegia.

Atzo izan zen inaugurazio ekitaldia, bertan izan zirelarik Begoña Olamusu liburutegiko arduraduna, Gregorio Eizagurre Udaleko idazkaria, Amalia Adurriaga kultur zinegotzia eta Maria Luisa Agirre mediku ohia, horrelako ekitaldi batek ez baitzuen gutxiago merezi.

Gazte nahiz heldu, mutil nahiz neska probetxua atera diezaiotela horrelako zerbituari. Sekulako paraje ederrari begira, milaka ipuin, istorio edota mota guztietako jakintzak daude gordetik, irakurriak izateko zain, gozatuak izateko gogoz eta, maitatuak izateko desioz.



Haurrentzako liburueta aukera zabala eskaintzen du liburutegiak. M.S.



Ordenagailuak ere erabil daitezke liburutegiko ordutegietan. M. SOROA

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...